



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioa 2016

Jarraipen-txostena

2016

AURKIBIDEA

0.	AURKEZPENA.....	5
I.	ATALA: BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN JARRAIPENA. 2016KO LABURPENA.....	6
1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK.....	7
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK	9
2.1.	GOBERNANTZA BERDINTASUNERANTZ ERAMATEKO NEURRIEI LOTUTAKO EMAITZAK	9
2.1.1.	BERDINTASUN-POLITIKEN PLANGINTZA EAEN	9
2.1.2.	BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK ETA EAEKO ADMINISTRATIOETAN BERDINTASUNA BULTZATZEN DUTEN LANGILEAK	11
2.1.3.	BERDINTASUN-POLITIKETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA GENERO- IKUSPEGIA EAEKO AURREKONTUETAN	14
2.1.4.	ARAUEN GENERO-INPAKTUAREN AURRETIKO EBALUAZIOA EAEKO HERRI-ERAKUNDEETAN.....	17
2.1.5.	PARTAIDETZA BERDINTASUN-POLITIKETAN.....	18
2.1.6.	BERDINTASUN-ALORREKO PRESTAKUNTZA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	18
2.1.7.	BERDINTASUN-KLAUSULAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZETAN	21
2.1.8.	BERDINTASUN-ALORREKO BESTE HELBURU GARRANTZITSU BATZUEN BILAKAERA GOBERNANTZAREN ESPARRUAN.....	22
2.2.	ESKU-HARTZEKO ARDATZEN JARRAIPENAREN EMAITZAK	25
2.2.1.	ESKU-HARTZEEN HELBURU POLITIKOAK	25
2.2.2.	BERDINTASUN-EKINTZEN GAIK	27
2.2.3.	ESKU-HARTZE MOTA	27
2.2.3.1.	PRESTAKUNTZA	29
2.2.3.2.	SENTSIBILIZAZIOA	31
2.2.3.3.	INFORMAZIOA, EZAGUTZA ETA ANALISIA	32
2.2.4.	EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK SORTU ETA KUDEATZEA	34
2.2.5.	BERDINTASUN-EKINTZEN ONURADUNENGANAKO HURBILPENA (ERAKUNDEAK NAHIZ PERTSONAK)	35
2.2.5.1.	EKINTZEN ONURADUNAK.....	35
2.2.6.	EKINTZAK EGOKITZEKO NEURRIEN ERABILERA.....	36
2.2.7.	ESKU-HARTZEEN KOSTUA.....	36
II.	ATALA: EAEKO BOTERE PUBLIKOEK BERDINTASUNAREN ALORREAN JORRATUTAKO JADUEREI BURUZKO INFORMAZIO XEHAKATUA 2016.....	38
1.	GOBERNANTZA.....	39
1.1.-	BERDINTASUN-PLANGINTZA	39
1.2.-	UNITATE ADMINISTRATIBOAK ETA LANGILEAK.....	41
1.3.-	BERDINTASUN-POLITIKETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	43
1.4.-	INPAKTUAREN AURRETIKO EBALUAZIOAK.....	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
1.5.-	PARTAIDETZA BERDINTASUN-POLITIKETAN	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
1.6.-	BERDINTASUN-ALORREKO PRESTAKUNTZA.....	46
1.7.-	BERDINTASUN-KLAUSULA KONTRATAZIO PUBLIKOETAN	48
1.8.-	BERDINTASUN-ALORREKO BESTE HELBURU GARRANTZITSU BATZUEN BILAKAERA GOBERNANTZAREN ESPARRUAN	50
2.	ESKU-HARTZEAK.....	54

Taulen aurkibidea

1 taula:	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2016	7
2 taula:	Berdintasun-planak eta -programak indarrean dituzten instituzio partaideen kopurua eta planen ezaugarriak. 2016	39
3 taula:	Barneko berdintasun-planak dituzten instituzioen kopurua. 2016	40
4 taula:	Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolamenduan txertatutako neurriak. 2016	40
5 taula:	Berdintasunerako organo edo unitate administratiboak dituzten instituzioen kopurua. 2016	41
6 taula:	Berdintasuna bultzatzen ari den enpleguaren ezaugarriak. 2016	41
7 taula:	Langileak, kontratu-motaren arabera. 2016	41
8 taula:	Berdintasuna bultzatzeko eginkizuna duten teknikariak. 2016	41
9 taula:	Dedikazio eskusiboan ari diren langileak, lanaldi-motaren arabera 2016	42
10 taula:	Berdintasun-unitateen jardura batzuen ezaugarriak. 2016	42
11 taula:	Aurrekontu orokorra eta berdintasunerako berariaz identifikatutakoa (eurotan). 2016	43
12 taula:	Gauzatutako berdintasun-aurrekontuen xehakapena (eurotan). 2016	43
13 taula:	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak. 2016	43
14 taula:	Inpaktu-ebaluazioa duten arauen kopurua eta ezaugarriak. 2016	44
15 taula:	Araudietan berdintasuna lortzeko instituzioek ezarri dituzten neurriak. 2016	44
16 taula:	Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioak egiteko jarraibideak edo erabakiak onartzea. 2016	44
17 taula:	Herritarren partaidetza eta berdintasuna. 2016	45
18 taula:	Erakundeek sustatutako barne-prestakuntza. 2016	46
19 taula:	Erakundeek sustatutako berdintasun-alorreko barne-prestakuntza. 2016	46
20 taula:	Berdintasuneko barne-prestakuntzako partaidetza, kategoriaren arabera banakatuta. 2016	46
21 taula:	Barnekoa eta HAEErena ez den edozein motatako prestakuntzako partaidetza. 2016	47
22 taula:	Berdintasun-alorreko prestakuntzaren banakapena (aurreko taula). 2016	47
23 taula:	Berdintasun-irizpideak kontratazioetan. 2016	48
24 taula:	Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2016	48
25 taula:	Berdintasun-irizpideak diru-laguntzetan eta laguntzetan. 2016	48
26 taula:	Berdintasun-irizpideak beketan. 2016	48
27 taula:	Kontratazio-prozesuetan irizpideak ezartzeko arau, gidalerro eta abarren onarpena. 2016	49
28 taula:	Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia txertatzea. 2016	50
29 taula:	Berdintasunari lotu gabeko koordinazio-egituretan parte hartzea. 2016	50
30 taula:	Sail arteko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean. 2016	50
31 taula:	Sail barneko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean. 2016	50
32 taula:	Koordinaziorako eta indarkeriaren aurreko protokoloetarako beste egitura batzuk. 2016	51
33 taula:	Berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2016	51
34 taula:	Estatistika eta azterketetan genero-ikuspegia txertatzea, era sistematikoan edo puntualen. 2016	51
35 taula:	Prentsa-oharrak eta azterlanak. 2016	51
36 taula:	Hautapen-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2016	52
37 taula:	Berdintasun-plazak dituzten prozesuak. 2016	52
38 taula:	Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko... eta sariak emateko epaimahaiak. 2016	52
39 taula:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2016	53
40 taula:	Identifikatutako jarduketa-kopurua, instituzio-motaren arabera. 2016	54
41 taula:	Aurreko urtekoen jarraipena diren jarduketaren kopurua eta ehunekoa, erakunde-motaren arabera. 2016	54
42 taula:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	54
43 taula:	Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	55
44 taula:	Esku-hartze mota berezi modura formulatzen diren jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	55
45 taula:	Herritarrak prestatzeko jarduketetako partaideen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	55
46 taula:	Prestakuntza-helburu zehatzetara zuzendutako jarduketaren kopurua (herritarrentzako prestakuntza), erakunde-motaren arabera. 2016	56
47 taula:	Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretako partaideen kopurua, instituzio-motaren arabera. 2016	56
48 taula:	Zerbitzu Publikoentzako prestakuntza-jardueren kopurua, prestakuntza-helburuen eta instituzio-motaren arabera. 2016	56
49 taula:	Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jarduketetako parte-hartzaileen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	56
50 taula:	Sentsibilizazio- jardueren kopurua tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2016	57
51 taula:	Jardunbide jakinetan oinarritutako informazio-, ezagutza-eta azterketa-jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	57
52 taula:	Zerbitzu eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jardueren kopurua eta ezaugarritzea, erakunde-motaren arabera. 2016	57
53 taula:	Azken hartzaile diren alorren arabera jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	58

54 taula:	Gizon, emakume eta transgenerokoei/transexualei bereziki zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	58
55 taula:	Talde bereziei zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	58
56 taula:	Berdintasunaren beste helburu batzuetara ere (ez soilik emakume eta gizonentzat) bideratutako jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	59
57 taula:	Talde jakinetara egokitzeko neurriak jasotzen dituzten jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	59
58 taula:	Jakinarazitako jardueren kostua, erakunde-motaren arabera. 2016	59

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa:	Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten instituzioen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016	10
2. grafikoa:	Ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2016	12
3. grafikoa:	EAEko berdintasun-langileak, instituzioaren arabera. 2016	13
4. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, instituzioaren arabera. 2016	13
5. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, instituzioaren arabera. 2016	14
6. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera (mila eurokotan). 2016 ..	15
7. grafikoa:	Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2016	16
8. grafikoa:	Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua, instituzioen arabera. 2016...	17
9. grafikoa:	Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osieran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2016	18
10. grafikoa:	EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alorrekoa) jaso duten langileak. 2016	19
11. grafikoa:	Administrazio publikoetako gizon eta emakumeak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alorreko prestakuntzan. 2016	19
12. grafikoa:	Berdintasunean trebatutako langileak, instituzioaren arabera. 2016	20
13. grafikoa:	Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2016	20
14. grafikoa:	Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2016	21
15. grafikoa:	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2016	22
16. grafikoa:	Berdintasun-alorreko unitateen eta langileen partaidetza euren instituzioetako koordinazio-egitura orokorrean.	22
17. grafikoa:	Berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2016	23
18. grafikoa:	Epaimahaietan eta auzitegietan emakumeen eta gizonen ordezkariak. 2016	24
19. grafikoa:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2016	24
20. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2016	25
21. grafikoa:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua. 2016	26
22. grafikoa:	Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2016	27
23. grafikoa:	Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2016	28
24. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrek), instituzioaren arabera. 2015	29
25. grafikoa:	Herritarrek trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2016	30
26. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako langile publikoak, instituzioaren arabera. 2016	30
27. grafikoa:	Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jardueren kopurua, helburuaren arabera. 2016	31
28. grafikoa:	Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu dutenen kopurua. 2016	31
29. grafikoa:	Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, instituzio sustatzailearen arabera. 2016	32
30. grafikoa:	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2016	32
31. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2016	33
32. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2016	33
33. grafikoa:	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2016	34
34. grafikoa:	Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2016	34
35. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2016	35
36. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2016	35
37. grafikoa:	Bestelako desberdintasunak borrokatzea bideratutako ekintzen kopurua 2016	36
38. grafikoa:	Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2015	36
39. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta ekarri dutenak. 2016	37
40. grafikoa:	Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, instituzioaren arabera. 2016	37
41. grafikoa:	Identifikatutako sailek ezarpenean parte hartu duten berdintasun-planak dituzten udalerrak eta aldundiak 2016	39

0. AURKEZPENA

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VI. Planak xedatzen duenez, EAEko botere publikoek ekitaldi bakoitzean alor horretan jorratutako jarduketek berri jasoko duen ebaluazio-agiri bat idazteko betebeharra dute. 2016. urtean, gainera, X. legealdia itxi da.

Bi formatu bereizitan azalduko ditugu 2016an botere publikoek berdintasun-alorrean egin dituzten esku-hartzeak: Lehenengo atalean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-alorrean EAEko instituzioek landu dituzten gai nagusiak aztertuko ditugu, labur, instituzio informatzaileen esparruaren eta tipologiaren arabera (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak, erakunde autonomoak...). Bigarren atala estatistika-eranskin gisa planteatu dugu eta aurreko informazioaren xehakapena jasotzen du, tauletan bilduta.

Bi atalek Berdintasunerako VI. Planaren egitura errespetatzen dute eta, hartara, honela aurkeztuko dira:

- Lehenengo, herri-erakundeetan genero-ikuspegia txertatzea (Gobernantza). Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean herri-erakundeen funtzionamenduan eta antolamenduan genero-ikuspegia txertatzearen inguruan jasota dauden oinarritzko baldintzak betetzen ote diren aztertuko dugu.
- Bigarrenik, VI. Planaren hiru ardatzen inguruan jorratutako esku-hartzeak aztertuko ditugu: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea; gizarte-antolaketa erantzunkidea; eta emakumeen aurkako indarkeria erazteak.

Urteko jarraipena egiteko, aplikazio informatiko baten bidez biltzen da instituzioek emandako informazioa, bai Gobernantzaren arloan (galde-sorta bat erakunde bakoitzeko), bai berdintasuna sustatzeko egin diren esku-hartzeen arloan (jarduketa bakoitza ezaugarritzeko fitxa berezien bidez). Oinarritzko informazio horrekin batera, herri-erakundeetako berdintasun-politiken arduradunek informazio osagarria eta bestelako xehetasunak ere ematen dituzte, aplikazioan sartutako datuak hobeto ulertzen laguntzeko. Hemen aurkeztuko dugun informazioa 2016ko abendutik 2017ko apirilera bitartean jasotakoa da.

Agiri hau prestatzean, egituratzean eta informazioa zehaztean denbora-homogeneotasuna mantendu nahi izan dugu, aztertutako datuen urtetik urterako bilakaera ulertzen lagunduko duelakoan.

**I. ATALA:
BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN
JARRAIPENA.
2016KO LABURPENA**

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

Azken legealdietan, botere publikoen printzipioak eta helburuak identifikatzeko esparru-plantzat definitu izan dira EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak; alabaina, ez dute printzipio eta helburu horiek lortzeko berariazko esku-hartzerik zehazten, eta herri-erakundeek esku uzten dute nork bere eskumen-esparruan egokientzat edo eraginkorrenzat jotzen dituen esku-hartzeak diseinatu eta burutzeko zeregina. EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana ere ildo horretan kokatzen da, eta Planak berak proposatutako helburuen benetako garapena baloratzeko zehazten dituen adierazleen bidez azter daiteke hobekien beraren ezarpen-mailaren xehetasuna.

Errazagoa da VI. Planak Gobernantzaren arloan zehaztutako helburuen betetze-mailaren balorazioa egitea; izan ere, 4/2005 Legeak eta bera garatzeko egindako arauak lorpen kuantitatibo jakinak agintzen dituztenez, errazago neur daiteke benetako garapen-maila.

Bildutako informazioa oinarri hartuta, txosten honetan gauzatze-mailaren ikuspegitik aztertuko dugu EAEko berdintasun-politiken garapena. Bestela esanda, txostenean ez da baloratuko VI. Planak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko proposatzen duen gizarte-aldaketako helburua lortzen ote den edota zein mailatan lortzen den. Horretarako, inpaktu-ebaluazioa egin beharko da, adierazle estrategikoak eguneratuz. Hain zuzen, hori egiten denean erabat burutuko da VI. Planaren azken ebaluazioa, 2017. urtean beraren indarraldia amaitzen denean (eta ondoren egingo da hurrengo berdintasun-plan orokorra).

Txosten honen bidez, berdintasun-politiken plangintzan izandako aurrerakuntza baloratuko da, herri-erakundeetan berdintasun-politikak sustatzen dituzten pertsonak kuantifikatu eta ezaugarrituko dira, eta herri-erakundeek berdintasuna bultzatzera bideratzen duten aurrekontuen berri jasoko da, berdintasun-alorreko bestelako gai adierazgarrien artean. Ildo beretik, EAEko herri-erakundeek esku-hartzeak desberdintasunaren zein esparrutara bideratzen diren ere jakiteko aukera emango du lanak, bai ikuspegi kuantitatibotik bai ekonomikotik.

Urteko ebaluazio honetan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, udalek eta mankomunitate edo partzuergoek, erakunde autonomoek, erakunde publikoek eta kapital publikoko enpresek, baita berdintasun-esparruan eginkizun garrantzitsua duten beste erakunde eta instituzio batzuek ere (adibidez, EHUK eta Batzar Nagusiek). 110 erakunde izan dira guztira.

1 taula: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeek kopurua. 2016

Instituzioak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzako sailak ¹	8
Foru aldundiak	3
Udalak ²	70
Mankomunitateak eta partzuergoak	4
Erakunde autonomoak eta publikoak	13
Kapital publikoko enpresak	9
Beste instituzio eta erakunde batzuk	3
GUZTIRA	110

¹ Ez dugu eskuratu Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren informaziorik, informazioa biltzeko garaian berdintasun-unitateko arduraduna gaixorik egon delako.

² 63 udalek erantzun diote Gobernantzaren arloari, baina 7k jarduera-fitxak soilik txertatu dituzte.

Hona hemen ebaluazio honetan parte duten eta dokumentuan aurkeztutako informazioa eman duten erakunde eta entitateak:

Abaltzisketako Udala	Sestaoko Udala
Abanto-Zierbenako Udala	Sondikako Udala
Amezketako Udala	Sopelako Udala
Amorebieta-Etxanoko Udala	Soraluzeko Udala
Amorotoko Udala	Sukarrietako Udala
Amurrioko Udala	Ugaoko Udala
Aramaioko Udala	Urdulizeko Udala
Arantzazuko Udala	Urnietako Udala
Areatzako Udala	Zaldibarko Udala
Arteako Udala	Zamudioko Udala
Astigarragako Udala	Zarauzko Udala
Baliarraingo Udala	Zeanuriko Udala
Balmasedako Udala	Zigoitiko Udala
Barakaldoko Udala	Zumaiako udala
Barrikako Udala	Haur-eskolak
Bediako Udala	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea
Berangoko Udala	Arratiako Mankomunitatea
Berastegiko Udala	Eudel
Bermeoko Udala	Lehendakaritza
Berrizko Udala	Herri Administrazioa eta Justizia Saila
Bilboko Udala	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Debako Udala	Ogasun eta Finantza Saila
Derioko Udala	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Dimako Udala	Segurtasun Saila
Donostiako Udala	Osasun Saila
Durangoko Udala	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Elgoibarko Udala	Arabako Foru Aldundia
Elorrioko Udala	Bizkaiko Foru Aldundia
Erandioko Udala	Gipuzkoako Foru Aldundia
Errenteriako Udala	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia
Galdakaoko Udala	URA - Uraren Euskal Agentzia
Gasteizko Udala	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Gernika-Lumoko Udala	Lehiaren Euskal Agintaritza
Getariako Udala	Emakunde
Getxoko Udala	ETS. Euskal Trenbide Sarea
Gorlizko Udala	Eustat
Igorreko Udala	EEE. Energiaren Euskal Erakundea
Irungo Udala	Finantzen Euskal Institutua
Larrabetzuko Udala	HAEE
Leioako Udala	Osakidetza
Lemoako Udala	Osalan
Lemoizko Udala	Unigual
Lezamako Udala	Basquetour
Lizartzako Udala	Euskotren
Loiuko Udala	Ihobe
Mungiako Udala	Itelazpi
Nabarnizko Udala	Izenpe
Oñatiko Udala	Neiker-Tecalia
Ordiziako Udala	Parque Tecnológico de Alava SA
Orendaingo Udala	SPRI
Orozkoko Udala	Visesa
Pasaiaiko Udala	HAZI
Plentziako Udala	Arabako Batzar Nagusiak
Portugaleteko Udala	Euskal Herriko Unibertsitatea
Santurtziko Udala	

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK

Kapitulu honetan, analisiaren bi alderdietan garrantzitsuentzat jo ditugun gaien laburpena azalduko dugu: EAEko botere publikoen gobernantzan genero-ikuspegia ezartzea, eta botere publikoek zer jarduketa egiten dituzten balioen aldaketa, emakumeen ahalduntzea eta gizarte-erantzukidetasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko.

2.1. Gobernantza berdintasunerantz eramateko neurriei lotutako emaitzak

«Gobernantza» izenaren pean, EAEko herri-erakundeetan genero-ikuspegia txertatzera bideratutako hainbat helburu zehazten ditu VI. Planak, honela adierazita: *«emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, asmoak eta beharizanak sistematikoki aintzat hartzea, desberdintasunak erazteraz zuzendutako helburu eta jarduketak txertatuz politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan»*.

Lehenago ere adierazi dugun bezala, genero-maistreamingeko asmo horien inguruan lortutako helburu nagusien ikuspegi laburra aurkeztuko dugu txosten honen atal batean eta ondoren, agiriaren bigarren zatian, esparru instituzional bakoitzaren egoerari buruzko informazio zehatzagoa emango dugu.


2.1.1. Berdintasun-politiken plangintza EAEn

EAEko eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko betebeharra arautzen du 4/2005 Legeak. Legeak ezartzen duenez, *«legegintzaldi bakoitzean, eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira»*.

Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek eta udalek EAEko Administrazio Orokorraren plangintzatik eratorritako gidalerroekin bat etorriko diren berdintasun-planak edo -programak onartzen dituzte, nahiz eta guzti-guztietan onartzeko aldia eta indarraldia beti berdina ez izan. Orobat, kapital publikoa nagusi den enpresetara ere iristen da berdintasun-alorreko esku-hartzeak planifikatzeko betebeharra.

2016an bildutako informazioak berriro ere erakusten du Eusko Jaurlaritzako sail guztietan eta hiru foru aldundietan ezartzen dela berdintasun-alorreko plangintza. Ebaluazioan parte hartu duten 70 udalerrietatik 58k esan dute badutela berdintasun-plana indarrean. Gutxiago dira, ordea, berdintasun-planak dituzten erakunde autonomo eta publikoak³. Horien artean, EHuren Berdintasun Plana nabarmentzen da.

1. grafikoa: Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten instituzioen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2016



Instituzioek era sistematikoetan egiten dituzte berdintasun-planak, alor horretako helburu nagusiak identifikatzen dituzten diagnostikoetan oinarrituta eta instituzioak osatzen dituzten sailen eta departamentuen partaidetza teknikoarekin eta politikoarekin. Plan gehien-gehienek geroko ebaluazioa ere jasotzen dutenez, plangintza pixkanaka sistematizatzen ari dela ikusten da.

Plangintzan parte hartzeaz gain, sailek berdintasuna bultzatzeko jarduketak ere egiten dituzte. Eusko Jaurlaritzako sailei eta hiru foru aldundiei dagokienez, ia era sistematikoan hartzen dute parte⁴. Udal-esparruan, kultura, euskara, kirolak eta alkatetza dira planak garatzen partaidetzarik handiena duten sailak, eta gizarte-politika eta hezkuntza ondoren.

Foru aldundietan eta udaletan herritarren partaidetza jaso ohi dute berdintasun-planek. Horixe adierazi dute ebaluazioan parte hartu duten 56 udalek. Gainera, kasurik gehienetan (% 75), partaidetza horrek berariaz bermatu du emakumeek, dela banaka dela elkarteen bidez, egindako ekarpenak plangintzan txertatzea.

³ 2016an, 7 erakunde autonomok adierazi dute berdintasun-plana egiten ari direla.

⁴ EHuren Berdintasun Planak ere izan du aurretiko diagnostikoa, eta ondoren ebaluazioa egitea aurreikusten du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko plangintza berezi horrekin batera, 30 erakundek esan dute berdintasunari lotutako bestelako planak eta programak ere badituztela⁵.

Kapital publikoko enpresa askok (ebaluazioan parte hartu duten 9 erakundetatik 6k) erabiltzen dituzte Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak eskatzen dituen barneko berdintasun-planak⁶. Institutio gehienek barneko berdintasun-planik izan ez arren, % 40 inguruk lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak eta berdintasun-alorreko prestakuntza bultzatzen ditu. EHUKo Berdintasun Planak lan-harremanei lotutako 19 ekintza jasotzen ditu, nahiz eta berariaz garatutako barneko berdintasun-planik izan ez.

2.1.2. Berdintasunerako unitate administratiboak eta EAEko administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak

Euskal Autonomia Erkidegoko sail guztiek administrazio-unitate bat izan behar dute, gutxienez, berdintasuna sustatzeko eta kasuan kasuko sailari eta atxikitako erakunde autonomoei aipatutako sustapen-zereginetan laguntzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat. Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomo, sozietate eta gainerako entitate publikoei.

Lege horrek, halaber, foru- eta toki-administrazioak egokitze premia arautzen du, bakoitzari dagokion esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, koordinatu eta garatuko dituen entitate, organo edo unitate administratibo bat egon dadin gutxienez.


Ebaluazioan parte hartu duten instituzio guztietatik 60k adierazi dute berdintasun-organoak edo -unitateak dituztela. Egitura horiek Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan⁷ eta foru aldundi guztietan daude, baita ebaluazioan parte hartu duten tokiko administrazioen % 56an ere. Erakunde autonomo eta publikoei dagokienez, baten batzuek baino ez dituzte berdintasun-unitateak (% 31k). EHUK ere adierazi du baduela berdintasuna bultzatzeko berariazko egitura, 2016an 9 aldiz bildu dena. Arabako Batzar Nagusiek jakinarazi dutenez, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen aldeko Batzordea 5 aldiz bildu da 2016an.

⁵ Gehienak emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak, sexu-jazarpenari buruzkoak edo jazarpen sexistari buruzkoak dira.

⁶ Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurrien multzo antolatutak dira, eta enpresan edo erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuagatiko diskriminazioa desagerraraztea dute helburu.

⁷ Ebaluazioan ez du parte hartu berdintasun-unitatea eta teknikari espezializatuak dituen Sail batek.

2. grafikoa: Ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2016




Berdintasun-unitateak eta -organoak daudenean, berdintasunaren bultzada ikusgarriagoa izaten da administrazioetako egituretan. Dena dela egitura formal horrek ez du esan nahi, halaberharrez, erakunde horietan berdintasun-politikak ezartzeko berariaz aritzen diren pertsonak daudenik. Izan ere, ebaluazioan parte hartu duten 84 instituziok adierazi dute badituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarduten duten langileak, era eskusiboan edo beste eginkizun eta lan batzuekin batera.

Parte hartu duten instituzioen esanetan, 185 lagun aritu dira 2016an berdintasuna bultzatzeko jardunean, horietatik % 83 emakumeak. Langile horien % 57 (gizon nahiz emakumeak) lanaldi osoan aritzen da. Langile horiek oso egoera eta ezaugarri desberdinak dituzte erakundearen arabera. Hala, Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan, Emakunden⁸ eta, hein txikiagoan, udaletan, berdintasun-alorreko teknikariak izaten dira, berariazko prestakuntza garrantzitsua izaten dute, eta kontratu finkoz jarduten dute edo funtzionarioak izaten dira. Erakunde autonomo eta publikoetan, berriz, ohikoagoa izaten da berdintasuna bultzatzeko lana beste zeregin batzuekin uztartu behar izatea. Era berean, oro har ez dute berdintasun-alorreko prestakuntza berezirik eta garrantzitsurik izaten.

Emakunden daude berdintasuna bultzatzen aritzen diren pertsona gehien. Foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak antzeko teknikari-kopurua dute. Udaletan 84 lagun identifikatu dira berdintasuna bultzatzeko lanean: guztira identifikatutako langileen % 46.

⁸ Emakumek baditu beste 6 langile, berdintasun-teknikariak izan gabe, berdintasunaren alorreko berariazko prestakuntza garrantzitsua dutenak. Kasu horretan, kudeaketan eta administrazioan lan egiten dutenek ere bultzatzen dituzte berdintasun-politikak.


3. grafikoa: EAEko berdintasun-langileak, instituzioaren arabera. 2016




Oro har hartuta, identifikatutako langileen % 50 administrazioko A mailan daude. Ondoren datoz «bestelakoak» atalean daudenak (% 22). EAEko herri-erakundeetan berdintasun-teknikari gisa aritzen diren langile guztietatik 110ek berdintasun-alorreko prestakuntza garrantzitsua (150 ordutik gorakoa) dute. Gainera, horietatik % 69k kontratu finkoa dute edo funtzionarioak dira.

Eusko Jaurlaritzako sailetan, foru aldundietan eta Emakunden berdintasuna bultzatzen aritzen diren langile gehienak dedikazio eskusiboan eta lanaldi osoan aritzen dira. Dedikazio eskusiboa ohikoa da udaletan ere (% 88tan), baina langile horien erdia lanaldi partzialean aritzen da. Beste instituzio eta erakunde batzuetan ohikoa da berdintasuna eta beste jarduera batzuk uztartzea, EHUn izan ezik.

4. grafikoa: Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, instituzioaren arabera. 2016



5. grafikoa: Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, instituzioaren arabera. 2016



Berdintasun-alorrean dedikazio eskusiboan aritzen diren hiru lagunetik bi lanaldi osoan aritzen dira⁹ eta beraien plaza lanpostuen zerrendan sartuta dago Emakunden, foru aldundietan, Eusko Jurlaritzako Sailetan eta erakunde autonomoetan. Udaletan, ordea, jakinarazitako hiru kasuetatik baten baino ez da hala.

Berdintasuna bultzatzeko lana beste eginkizun batzuekin uztartzen duten langileak laguntzarako teknikariak edo administrariak izaten dira, edota gizarte-zerbitzuen alorrean aritzen diren langileak bestela (batez ere udaletan). Dena dela, baten batzuek beste alor batzuetako zereginekin uztartzen dute berdintasunaren aldeko lana: herritarren partaidetza alorrekin, kulturakoarekin, gazteria-alorrekin...

2016an berdintasun-alorreko teknikariak hautatu eta sustatzeko prozesu gutxi egon diren arren (4 baino ez 2016ko ebaluazioan), horietan guztietan berdintasun-alorreko 150 orduko prestakuntza izatea eskatu da.

2.1.3. Berdintasun-politika bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituzte beren urteko aurrekontuetan.


Ebaluazioan parte hartu duten 65 instituziok adierazi dute berdintasunerako aurrekontu espezifikoak dutela, eta pixka bat gehiagok (71k) adierazi dute alor horretan gauzatutako aurrekontua identifikatzeko aukera dutela. Hala, berdintasunera bideratutako 15,4 milioi euro inguruko aurrekontua identifikatu dute instituzioek, eta 30,9 milioi euroko aurrekontu gauzatua jakinarazi dute, berriz, guztien artean.

⁹ Udal esparruan dedikazio eskusiboa duten langileen erdia lanaldi partzialaren ari da.

Zenbateko horiek kontuan hartuta, ebaluazioan parte hartu duten instituzioek 2016ko aurrekontuen % 0,2 inguru bideratu dute berdintasun-alorrera. Kontuan hartu behar da, ordea, erakunde guztiek ez dutela informazio hori jakinarazi (bereziki kapital publikoa nagusi duten enpresek).

Eusko Jaurlaritzako sailek hartu dute beren gain 2016an berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontuaren erdia baino gehiago. Emakundek berdintasunera bideratu du aurrekontu osoa (5,6 milioi euro), eta udalek eta foru aldundiek 4,2 eta 2,7 milioi euro bideratu dituzte, hurrenez hurren. Erakunde autonomo eta publikoek nahiz kapital publikoa nagusi den enpresek askoz ere zenbateko txikiagoa bideratu dute helburu horretara.


6. grafikoa: EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundeen arabera (mila eurokotan). 2016



VI. Planaren jarraipena egiteko dispositiboak, aurrekontuen arloan, hiru multzotan bereizten du berdintasun-arloa bideratutako aurrekontua: berdintasun-planetara eta -programetara bideratutako zenbatekoa, batetik; berdintasun-unitateetara bideratutakoa, bestetik (eta, azken horren barnean, berdintasun-unitateko langileen kostua eta berdintasun-jardueretara bideratutako zenbatekoa bereizita); eta egitura eta zerbitzuetara bideratutako zenbatekoa, azkenik. Zenbait erakundek langileen eta zerbitzu batzuen kostua plan edo programen kostuaren baitan sartzen dutenez, banakapen hori gutxi gorabeherakoa da, eta gainjartze batzuk ere baditu.

Hori kontuan hartuta, *planek eta programek* hartzen dute aurrekontuaren zatirik handiena: jakinarazitako aurrekontuen % 47. Ondoren datoz *egiturak eta zerbitzuak* (% 32); *berdintasun-unitateetako langileek*, berriz, berdintasun-alorreko aurrekontu osoaren % 19 inguru hartzen dute. Berdintasun-unitateek 2016an identifikatutako aurrekontu osoaren % 13 inguru bideratu dute berdintasun-alorreko jarduketak egitera.

7. grafikoa: Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2016



Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako beharrei erantzutera bideratu da aurrekontu horien zati handi bat: segurtasuna, laguntza psikologikoa eta juridikoa, diru-laguntzak eta abar. Ebaluazioan parte hartu duten instituzioek 16 milioi euro inguruko aurrekontua identifikatu dute emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta ondorioak arintzeko. Horien artean nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzako sailek (Segurtasun Sailak, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, Herri Administrazio Sailak eta Justizia Sailak) bideratutako zenbatekoak, 12 milioi eurotik gorakoak. Dena dela, foru aldundiek eta udalerririk handienek ere badute zeregin aktibo garrantzitsua alor horretan.

Instituzioen aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, hein batean baino ez da ezarri: Eusko Jaurlaritzako sail eta foru aldundi guztiek txertatu dute, baina gainerako instituzioetatik oso gutxi (9k guztira). Berdintasun-alorrean izango duten eragina baloratuta duten aurrekontu partzialak dagokienez, halako 114 identifikatu dira, eta Eusko Jaurlaritzarenak eta foru aldundienak izan dira horietako % 62. Halakoak ezartzeko fasean dituzten 9 instituzioek prestakuntzara eta lantaldeen sorrerara bideratu dute aurrekontuen zati bat.

2.1.4. Arauen genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa EAEko herri-erakundeetan


4/2005 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, nahitaezkoa da arauak lantzen hasi aurretik berdintasunean izango duten eragina ebaluatzea.

Tresna garrantzitsu hori herri-erakundeetan genero-zeharkakotasuna ezartzen laguntzeko faktore nagusietako bat dela uste dute Europako instituzioek. Arauetan edo egintza administratiboetan diseinatutako jarduerak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean izango duten inpaktua baloratzea da helburua. Inpaktu negatiborik identifikatuz gero, zuzentzeko neurriak ezartzeko aukera egongo da. Beraz, prebentziorako tresna garrantzitsua da.

2016ko datuen arabera, aurretiko genero-inpaktuari buruzko 300 ebaluazio baino pixka bat gutxiago egin dira, ia denak foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzako sailen araudiari lotuta (243 eta 40, hurrenez hurren). Hiru kasuetatik ia batean, arauen genero-inpaktua neutroa dela ondorioztatu da, eta 44 arautan, ondorio negatiboak zuzentzeko aldaketak egin dira (emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkaritza orekatua lortzeko, genero-ikuspegia txertatzeko, ekintza positiboko neurriak ezartzeko eta abar).

Horretaz gain, inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioak arautzeko zuzentarauak eta aginduak onartzeko fasean daude 8 udalerri eta foru aldundi bat.

8. grafikoa: Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua, instituzioen arabera. 2016




2.1.5. Partaidetza berdintasun-politiketan

Herri-erakundeen estrategiak eta ekimenak diseinatzean eta beraien jarraipena egitean herritarrek gero eta partaidetza handiagoa izatea eskatzen dute gobernantza-eredu berriek; eta, hain zuzen ere, partaidetza handiago horri heltzeko, oso alor interesgarria da berdintasun-politika.

Jarraipenean herritarren partaidetza egiturazkoa ote den ikusi nahi izan dugu, berdintasun-planak prestatzeko unean egon ohi den partaidetzaz harago. Jarraipenaren emaitzei erreparatuta, instituzioek herritarren partaidetzarako identifikatu dituzten 169 organo eta kontseiluetatik 40 berdintasun-esparrukoak dira (horietatik 33 udalerrietan) Berariaz berdintasuna lantzen ez duten partaidetza-kontseiluetan ere, ohikoa izaten da berdintasuna sustatzen duten elkarteek beraietan parte hartzea. Hein txikiagoan, beste kontseilu batzuek berdintasuna sustatzea jasotzen dute helburuen eta eginkizunen baitan, edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko adituen partaidetza bermatzen dute (42k eta 32k, hurrenez hurren).

9. grafikoa: Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2016




2.1.6. Berdintasun-alorreko prestakuntza administrazio publikoetan

4/2005. Legeak 17. artikuluan xedatzen duenez, euskal erakundeek langile guztiak prestatu behar dituzte, eta teknikariek zein ardura politikoa duten pertsonen genero-eten eta desberdintasun-esparru nagusiei buruzko oinarritzko jakintzak eduki behar dituzte, arlo eta jarduera guztietan berdintasuna zeharka bultzatu ahal izateko.

Lehenago ere aipatu dugu EAEko instituzioetan berdintasuna bultzatzea eginkizun nagusitzat duten pertsonen alor horretako prestakuntza berezia eta garrantzitsua (150 ordutik gorakoa) izaten dutela. Herri-erakundeak berdintasun-alorrean prestatzeko eta sentsibilizatzeko helburua eta, batzuetan, langile espezializatuak euren jarduera zehatzean (kontratazioa, arauak...) trebatzeko helburua bi modutan jorratzen dira: HAEEn sustatutako prestakuntzaren bidez eta bestelako prestakuntzen bidez. Jardun horrek garapen-maila desberdina du instituzioaren arabera. Guztira 12 erakundek adierazi dute berdintasun-alorreko prestakuntza-plana izan dutela 2016an.


EAEko administrazioan lan egiten duten 6.311 lagunek jaso dute berdintasun-alorreko prestakuntza, HAEEn emandako prestakuntzaz gain. Prestakuntza horretan parte hartu dutenen % 50,2 emakumeak izan dira; ezohiko datua da, normalean emakumeak argi eta garbi nagusitzen baitira. Aldaketaren arrazoia zera da: apurka-apurka gizonezkoak argi eta garbi nagusi diren esparruetako erakunde autonomo eta publikoen datuak¹⁰ sartzen hasi direla ebaluazioan, horietako batzuek garrantzi handiko prestakuntza-ekintzak egin baitituzte berdintasun-alorrean.

10. grafikoa: EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alorrekoa) jaso duten langileak. 2016




11. grafikoa: Administrazio publikoetako gizon eta emakumeak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alorreko prestakuntzan. 2016

Prestakuntza orokorra




Berdintasuneko prestakuntza




¹⁰ Poliziaren Euskal Akademiari buruzkoak batez ere.

12. grafikoa: Berdintasunean trebatutako langileak, instituzioaren arabera. 2016



Berdintasun-alorreko prestakuntzan partaide gehien dituen lanbide-kategoria teknikariena da (erdiak baino gutxiago)¹¹; hirutik bat, gainera, administrariak izan dira. 2016an, prestakuntza jaso duten langileen ehuneko handi bat arduradun politikoak izan dira, udal-esparruan jorratutako berariazko ekintzen ondorioz, batik bat.

13. grafikoa: Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2016



¹¹ Lanbide-mailen arabera xehakaturako informazioak guztira informatu den langileen erdia baino gutxiago identifikatzen du (2.475 lagun).


2.1.7. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua zera jasotzen du: ahal denean, EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela kontratuak esleitzeko irizpide gisa; ildo beretik, entitate edo pertsona esleipendunak bere lana egitean gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzeko betebeharra ere jasotzen du.

Hitzarmenetan (% 28tan) eta bekak ematean (% 15etan) baino ohikoagoa izaten da berdintasun-irizpideak txertatzea kontratazioetan (2016an identifikatutakoen % 72tan) eta diru-laguntzetan (% 59tan). Orobat, administrazioen esparruen arabera, erabilera-maila desberdina izaten da. Emakundek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako sailek, adibidez, ia kontratazio guztietan erabiltzen dituzte irizpideok. Diru-laguntzei dagokienez, zehazki, are gehiagotan erabiltzen dituzte Emakundek eta foru aldundiek.

2016an ere, kontratazio publikoetan irizpide horiek txertatzeko lan egin da, batez ere jarraibideak eta erabakiak onartzeko jarduketan bidez, hala kontratazioaren arloan nola diru-laguntzen arloan (22 erakunde ari dira prozesu horretan). Helburua: herri-erakundeen jardunean era sistematikoan erabiltzea.

14. grafikoa: Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2016




2.1.8. Berdintasun-alarreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikulua xedatzen duenez, EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan. Eta hori lortzeko bideetako bat da politika publiko guztien plangintzak egin eta gauzatzekoan berdintasun-teknikariek partaidetza zuzena izatea.


2016an EAEko administrazioen plan sektorialen erdia baino gehiago prestatzeko lanetan hartu dute parte berdintasun-unitateetako langileek, eta antzeko partaidetza izan dute planak ezartzeko lanetan ere (23 kasutan). Hiru plan horietatik batean erabili da emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa oinarritzat. Askoz gehiagotan ezarri dira, ordea, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten helburuak (identifikatutako 45 kasuetatik 30ean).

15. grafikoa: Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2016




Berdintasunaren zeharkakotasuna bultzatzeko prozesuan kontuan hartu behar da, berdintasun-alarreko langileek plan sektorialetan parte hartzeaz (eta genero-ikuspegia ezartzeaz) gain, berdintasun-alarreko langileek zer-nolako parte-hartzea duten koordinazio-egituretan (berdin dio berariaz berdintasunerakoak diren ala ez). Administrazio Orokorren eta foru-administrazioen berdintasun-unitateek ohituraz hartzen dute parte egitura horietan. Udal-esparruan, ordea, ohikoagoa da berariaz berdintasunekoak ez diren sailarteko egituretan parte hartzea (ebaluazio honetan parte hartu duten udalerrien % 44).

16. grafikoa: Berdintasun-alarreko unitateen eta langileen partaidetza euren instituzioetako koordinazio-egitura orokorretan.



Berdintasun-alorreko erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzeari dagokionez, egitura horien artean nabarmentzekoak dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea, erkidegoko, foruetako eta udaletako administrazioak biltzen dituen; Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko instituzio arteko Akordioaren Jarraipena egiteko Batzordea; Berdinsarea (berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako EAEko udalerrien sarea); eta Berdinbidean (udalerririk txikienei berdintasunerako politiken alorrean suspertzeko, koordinatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzua). 2016an, EAEko erakundeek 89 partaidetzaren berri eman dute; jakina, udalak izan dira partaidetza gehienek berri eman dutenak.

17. grafikoa: Berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2016



Berdintasun-politikak azterketa sendo eta eguneratuetan oinarritzeko premia ere azpimarratzen du 4/2005 Legeak 16. artikuluan, eta are garrantzi handiagoa du horrek etengabe aldatzen ari den gizarte-errealitateari heldu behar zaionean. Halatan, lehentasunezko helburua da administrazioaren estatistika eta azterketetan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeek eta gizonek alderdi sozial eta pertsonaletan bizi duten egoera (eta horren bilakaera) ondo ezagutzeko.


Garrantzitsua izan arren, genero-ikuspegia ez da oraindik sistematikoki ezartzen estatistika eta azterketa guztietan. Izan ere, batik bat Eusko Jaurlaritzako sailetara, Emakundera eta, hein txikiago batean, foru aldundietara mugatzen da. Udalei dagokienez, ez da ebaluazioan parte hartu duten udalerrien % 15etara iristen.

EAEko emakume eta gizonen egoerari buruzko 30 azterketa egin dira 2016an, eta 182 prentsa-oharrek erakutsi dituzte sexuaren arabera banatutako datuak (identifikatutako guztien % 8 inguruk).

Era berean, erabaki-guneetan eta bistaratzean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu lortzeko dagokionez, 2016an enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaien % 63k bete du lege-eskakizuna (4/2005 Legearen 20. artikulua), emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren harira¹². Ildo beretik, sariak emateko eta kultur ondasunak erosteko epaimahaietan ere nagusi izan da ordezkariak orekatua (% 72).

Epaimahaien osakeran ordezkariak orekatua ziurtatzeko klausulak nagusi ez badira ere, formalki araututakoa baino gehiagotan gertatzen da, *de facto*, ordezkariak orekatu hori izatea, batez ere enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaietan. Izan ere, klausularik zehaztu ote den aztertuz gero, instituzioek 2016an identifikatutako epaimahaien % 31k baino ez du izan halakorik.

18. grafikoa: Epaimahaietan eta auzitegiaren emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua. 2016



Erakundeetako kide anitzeko zuzendaritza-organismoen osakeran emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatu lortzeko dagokionez, ebaluazioko 171 organo identifikatu dira, horietako ia erdiak udaletan (% 47tan) eta Eusko Jaurlaritzako Sailetan (% 34tan). Organo horietatik 92k emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu dute (% 54k). Udalek identifikatutako organo gehiagotan lortu da ordezkariak orekatua: horietatik % 76an.

19. grafikoa: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2016




¹² Bete ez dutenen kasuan, askotan gertatzen da 3 lagunek osatutako epaimahaiak izatea eta, jakina, halakoetan ezinezkoa da emakumeen eta gizonen % 40ko gutxienezko ordezkariak ezartzea.

2.2. Esku-hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak

Parte hartu duten instituzioek jakinarazi dutenez, 714 esku-hartze egin dituzte 2016an EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Udalek egin dituzte jarduketak horien heren bat, Eusko Jaurlaritzako sailek % 30, eta foru aldundiek % 15. Urtean burututako 10 jarduketatik ia 6 aurreko urtean burututako jarduketan jarraipenak izan dira; datu horrek agerian jartzen du badirela irauteko bokazioa duten jarduketak, urtean zehazten diren ekintza berezietan gain.

20. grafikoa: EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2016



Instituzioek jakinarazitako jarduketaren izaera eta norainokoa hurrengo ataletan aztertuko dugu. Izan ere, herri-erakundeek euren eskumen-esparruetan egindako jarduketaren helburua, tipologia eta irismena ikusiko ditugu.

2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Sarri askotan, administrazioen esku-hartzeen helburuak elkarren artean lotzen dira eta ohikoa izaten da emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzek helburu bat baino gehiago izatea. Esku-hartzeen helburuak VI. Planaren 3 ardatzen inguruan egituratu dira: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea (horren baitan sartuta gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea; emakumeak ahalduntzea eta sustatzea; eta ordezkariak orekatzea); gizarte-antolakuntza erantzunkidea bilatzea, pertsonen zaintzari ere emakumeak, gizonak, enpresak eta herri-erakundeak biltzen dituen ikuspegi integral batetik helduta (erantzunkidetasuna helburu); eta emakumeen aurkako indarkeria ezeztatzea (indarkeria desagerraraztea).

Gobernantza hobetzeko jarduketak ere sartu dira, administrazioen ustez informazio xehakaturia ematea merezi duten jarduketa garrantzitsuekin osatzeko atal hori.


2016an, aurreko ekitaldietan bezala, gizartean balioak aldatzen laguntzeko helburura bideratu dira esku-hartze gehienak (327). Ardazte horretan ikusten da zer-nolako garrantzia aitortzen dion VI. Planak gizarte-eredu andoentrikotia eraldatu eta berdintasunean oinarritutako gizarte-eredua bultzatzeari. Izan ere, horixe da jakinarazitako ekintzen % 46ren helburua. Helburu horren pean jorratu dira prestakuntzako eta sentsibilizazioeko ekintzak, jardunaldiak edo ikerketak, besteak beste.

Esku-hartze kopuruari gagozkiolarik, emakumeak ahalduztzeko eta sustatzeko helburua dator ondoren (221 ekintza), eta emakumeen aurkako indarkeria erauztera zuzendutako ekintzen kopurua gero (215 ekintza). Lehenengoan artean, prestakuntzako eta ahalduztzeko ekintzak ez ezik, identifikatutako desberdintasun nagusiak (lan-merkatua, ekintzailatza...) gaintitzen laguntzeko orotariko jarduketak ere egiten dituzte administrazioek; bigarrenei dagokienez, irismen handiko zerbitzuak (juridikoak, arreta psikosozialak eta ekonomikoak...) eta sentsibilizazioeko eta prestakuntzako ekintza batzuk ere hartzen ditu.

